

MERKATU SEGMENTAZIOA

Gure produktua bezero guztientzat prestatuta dago. Umeek eta adinekoek erabili ahal dute aterkia. Bakoitzak nahi duen kolorea hautatuko du, guz ez dugulako zehaztuko zer kolore den genero bakoitzarako, estereotiporik gabeko enpresa garelako. Produktua tamaina desberdinekoa izango da, ondorioz adin guztientzat zuzenduta dago.

Beraz, hiru bezero potentzial aurreikusten ditugu: pertsona nagusiak, gazteak eta umeak. Pertsona nagusientzako aterki sinpleagoak ekoiztu ditugu, pertsona nagusiek oharkabeen pasatzea nahiago dutelako. Bestalde, gazteentzako diseinua pixka bat aldatu dugu, adibidez forma desberdinak gehitu ditugu plastikoari, hala ez dira adin nagusientzako bezain sinpleagoak izango. Azkenik, aterkirik desberdinenak umeentzat izango dira. Kolore-sorta zabala dugu, eta tamaina txikiagoa dute, haien adinerako agokitzeko asmoz.

Euria egiten duen egunetan, arropa bustitzea gorroto duenak erabil dezake, eta bezero haiek gure bezero potentzialak izango dira. Gehienak pertsona gazteak izan ahal dira, kalean gehiago egoten dira eta normalean askoz gehiago kexatzen dira haizea eta euria nahasten direnean sortzen den egoeraz.

Gure produktuaren originaltasuna baloratzen dugu, halaber gure produktuaren diseinu desberdindua egingo dugu.